

3. Funtsezko elkarteak

Aliantzak elikagaien hornitzaileekin

SPAR



Espainiako supermerkatuen mapa aztertu ondoren, **Spar** supermerkatuen frankiziarekin (1269 supermerkatu ditu) akordio batera iritea erabaki dugu. Ez da merkatu-kuota handiena duen supermerkatua, horregatik haientzat ere interesgarria izan daiteke gurekin elkarlanean aritzea. **Spar izango da gure elikagaien hornitzailea.** Horri esker, prezio hobeak eta kalitate handiko produktuen hornidura lortuko ditugu.



NEKAZARIAK

Gure supermerkatuetan **km0** produktuen atal bat egongo da. Horrela, inguruko nekazariekin harremanetan jarriko gara eta bizilagunek produktu natural horiek erosi ahal izango dituzte. Kilometro 0 produktuak eremu berean ekoizten eta kontsumitzen diren elikagaiak dira, distantzia luzeko produktuak garraiatzea saihestuz.

Nekazaritza eta tokian-tokiko produktuak sustatzeak elikagaiak osasungarriak, iraunkorrak eta kalitate onekoak izatea bermatzen laguntzen du. Gainera, prozesatutako elikagaien alternatiba bat eskaintzen du, nekazariari errentagarritasun hobea lortzeko aukera emanez. Horrek ere tokiko ekonomia hobetzen laguntzen du; izan ere, nekazariak bildutako dirua materialak, ekipoak eta beste ondasun eta zerbitzu batzuk erostera bideratzen da, eta horrek enplegua sortzen du eta komunitateari mesede egiten dio.

Aliantzak inguruko udalarekin

Inguruko udalekin bat egingo dugu, elkarri mesede egiteko. Udalak supermerkatuak **finantza-laguntza** emango digu, hala nola dirulaguntzak edo maileguak, herriak elikagaiak eskuragarriago izatearen truke. Udalak promozio moduak ere eskaini ahal izango dizkigu, publizitatea eta marketina kasu, eta lekuko azpiegitura hobetzen lagunduko digu. Gure aldetik, prezio merkeko produktuak eskainiko dizkiegu herriari eta udalari, komunitatearen kostuak murrizten laguntzeko. Elkarrekin lan egingo dugu hainbat proiektutan, adibidez, elikadura, hezkuntza, enplegua eta osasuna hobetzeko programa komunitarioetan laguntzea. TOPA supermerkatuak programetarako baliabideak eman ditzakete, hala nola elikagaien eta produktuen dohaintzak, eta egoiliarren artean osasuna eta ongizatea sustatzeko ekitaldiak ere antola ditzakegu.

Udalekuek Europako funtsak lortzen dituzte eta diru laguntzak lor ditzakegu proiektua interesgarria ikusten badute.

Aliantzak teknologia-hornitzaileekin



SAP

Gure ustez, **SAPen** ezarpenak aurrerapen teknologikoak izateaz gain, gure negozioa eraldatzeko aukera ere badira.

Lehenik eta behin, enpresa hornitzaileak eskainiko lukeen aholkularitza teknikoaren jabe izateak mesede egingo liguke, gure kudeaketa-prozesuak optimizatzeko eta dendaren eraginkortasuna hobetzeko. Gainera, **errealitate areagotua**, **adimen artifiziala** eta **zibersegurtasuna** bezalako teknologien erabilerak lagundu egingo lioke dendari bezeroen datuen segurtasuna hobetzen, produktuen kalitatea ziurtatzen eta bezeroentzako erosketa-esperientzia interaktiboagoa ematen. Horrek salmentak eta bezeroek negozioarekiko duten leialtasuna handitzen lagunduko luke.

VENDIVAL

Vendival taldea liderrak dira salmenta-makinen eta vending kontsumigarrien banaketan. Lidergo honi esker, bezeroekiko arreta pertsonalizatuarekin batera, bezeroen esperientzia bikaina izatea lortuko dugu.



Interneteko zerbitzuaren hornitzaileak

INTERNETFLASH

- ✚ **Online publizitatearen** bidezko salmentak handitzea.
- ✚ **Langileen eta salmenta-makinen eraginkortasuna hobetzea:** Interneterako sarbidea dutenez, langileek hainbat lan egin ahal izango dituzte modu eraginkorragoan, hala nola inbentarioak egiaztatzea eta eskaeren jarraipena egitea. Horri esker, denbora eta ahalegina aurreztu ahal izango dute eguneroko lanak egiteko orduan.